




500 lagun Abraham Olano X. Zikloturista Klasikoan

TOLOSA ▶ Estreinakoz, hiru
ibilbideren artean aukeratzetik
izan zuten txirringulariek

BALANTZEA ▶ Peña Olanoko
antolatzaileentzat, «berezia eta
arrakastatsua» izan da proba ▶ 3



Txirringulari gazteak. A. C. / A. PRESS

E. EZEIZA



Baliarraingo taldeak irabazi du Taldekako I. Sega Lehiaketa

TOLOSA ▶ 1.000 lagunek jarraitu zuten,
igandean, 120 segalarik lurreamendiko
zelaian eskainitako ikuskizuna ▶ 2

**TOLOSALDEA-
LEITZALDEA** ▶

Eskualdeko
aizkolariak
eta harri-
jasotzaileak,
finalerdietan ▶ 5

LEITZA ▶

Bigarren
gelditu eta
Gorengoen
mailara begira
da Aurrera ▶ 7

INGRID BUCHWALD ▶
ARTISTA

«Ideiak
komunikatzen
saiatzen naiz»

Ibartarrak bere lanak
jarri ditu ikusgai
Kultur Etxean ▶ 6



3 animazio eta 25 koadro jarri ditu Buchwaldek jaioterrian. I. TERRADILLOS

ceinpro

**Diseinuaneta kreazioahalmenean
oinarritutako heziketa**

■ DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA

ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu
SARRERA · UBI · LH II · IEE II · edo HSAOL BATXILERGOA gainditua

■ ARTE GRAFIKOEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA

ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu
SARRERA · 2. BBB · LH I · IEE I · edo DBH gainditua



Heriz Pasealekua, 95
20008 Donostia
Gipuzkoa
Tel: 848 910 873
Fax: 843 910 875
www.ceinpro.es



GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

'Apartheid' ez, dimisioak orain

Maiatzaren 25ean beteko da Tolosako Udalean ere, *apartheid* egoera aplikatzen den hirugarren urteurrena. Urteurren esanguratsua, azken hila-betetan Euskal Herrian bizi dugun egoera itzaropentsua kontutan izanik. Baina, hala eta guztiz ere, gaur egun Udalean ardura politikoa dutenek itsuarena, ez ikusiarena egiteko jarrrera hartu dute, erantzukizuna beste nonbait dagoen leloa errepikatuz.

Euskal Herrian, eskubide zibil eta politikoen ukazioak hor dirau eguna joan eta eguna etorri. Besteak beste, ehunka dira oraindik herritarren borondatea ukatuz osatuak izan eta jardunean jarraitzen duten udalak. Ehunka dira zilegitasun demokratikorik gabe kargu instituzionalak betetzen dihardutenak. Alkate, zinegotzi eta foru hautetsiak. Era berean, ehunka dira hautetsi izateko eskubidea ukatua dutenak eta milaka hautatzeko eskubidea urratu zaien euskal herritarak.

Baita Tolosan ere. Eguna,

oraindik, bost zinegotzi dira zilegitasun demokratikorik gabe kargu instituzionalak betetzen dihardutenak.

Oso oztopo larria suposatzen du ilegalizazio-*apartheid* politikoa. Prozesua indartze bidean, ilegalizazioa gaintzeko urratsak ezinbestekoak dira. Interes pertsonal eta partidistak utzi eta prozesuaren norabidean urratsak ematea funtsezkoa da. Garaia da.

Ilegalizazio-*apartheid*-a gaintu beharreko oztopoa da. Bideetik kendu behar dugun oztopoa, hain zuzen ere. Hau guztia kontutan izanik, honako

oinarri hauek proposatzen dizkiegu:

1. Udal honek Euskal Herrian eskubide zibil eta politikoen errespetua aldarrikatzea eta sortu den egoera politikoa sendotzeko eskubide horien aldeko urratsak ematea.

2. Aipatutako eskubide horien urrapen larria den heinean, ilegalizazio politika bertan behera uzteko aldarrikatzea PSEko Gobernuari

3. Udal honek ilegalizazio politikaren ondorioz Udal hauteskundeetan herritarren babesa jaso zuten hautatuek beren eskubideak gauzatuak

izan ditzaten urratsak emateko konpromisoa hartzea; instituzio gisa egoerak eskatzen diren mailan egotea, herritarren borondatea errespetatzera behartzen gaituelako.

Hori dela eta, tolosar guztiak deitu nahi ditugu hilaren 25ean udaletxe aurrean 20:00-etan egingo den bilkuran eta 26an leku eta ordu berean egingo den ekitaldi politikoan eta Udalaren osoko bilkuran parte hartzera.

ANTTON IZAGIRRE, BEGOÑA ALDALUR, HEKTOR ESPIN, AITOR IZTUETA ETA IBAN ORTIZ (TOLOSA BIZIRIK-EKO UDAL ORDEZKARIAK) ▶ TOLOSA

SEGA ▶

1.000 lagun 120 segalariri begira

Baliarraingo taldeak irabazi du Taldekako I. Sega Lehiaketa, Euskal Herrian inoiz egindako sega ikuskizunik handiena

ESTI EZEIZA

Igandean, Tolosako Iurramendiko zelaietan, Euskal Herrian inoiz egin den sega ikuskizunik handienaz gozatu ahal izan zen. Almitza Sega Elkartek antolatuta, Euskal Herriko eta Kataluniako 120 segalari aritu ziren belarra mozteko lanetan. Hasiberriak, beteranoak, base-rritarak nahiz hirikoak, era guztietako jendea bildu zen Iurramendiko zelaietara. Denera, 29 laukotek hartu zuten parte, hauetatik 26 gizonetako osatuak, eta hiru emakumeek.

Jokin Garmendiak, Iker Garmendiak, Julian Bereziartuak eta Arkaitz Arteagak osatutako Baliarraingo laukotek irabazi zuen I. Taldekako Sega Lehiaketa. Hauek bi minutu eta bost segundo behar izan zituzten 200m2ko lursaila ebakitzeko. Baina 36 segundoko penalizazioa gehituta, azken denbora bi minutu eta 41 segundokoa izan zen. Bigarren postuan, bi segundo gehiagorekin, Arrubizaldibi taldekoak geratu ziren,

Nesketan, berriz, Arano Idiazabalgoak izan ziren garaile, hiru minutu eta 39 segundoko denborarekin.

Kataluniarren erakustaldiak saltsa pixka bat jarri zion ikuskizunari. Lurraldeko txapela berezi batekin atonduta, patxadaz, presarik gabe aritu ziren lanean. Emakumeak nahiz gizonak, ideia handirik gabe, baina umoretsu aritu ziren belarra mozten. Hemengo segekin alderatuta, kataluniarrenak txikiagoak ziren, eta zirten ezberdina zuten. Kike Amonarri aurkezleak hitz batzuk eskaini zitkien katalanez segalariei. Jaso zituzten ere animatzaile lanetan aritu ziren Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano eta Iñaki Muruaren esker oneko bertsoak.

Apustua txandaka egin zuten, eta tanda bakoitzean hiru edo lau talde lehiatzen ziren. Hauek lana bukatutakoan, eta hurrengoak hasi bitartean, bertsolariet saio txo bat egiten zuten jendea animatzeko.

Baina jaia ez zen bukatu

sega apustuarekin; ondoren, Usabal sagardotegian jarraitu zuten, parte-hartzaileak nahiz ikusleak, denak bazkaltzera joan baitziren. Bertan, kritikita eta bertsoekin, festa giroan amaitu zuten eguna.

Almitza Sega Elkartekoen esanetan, «oso gustura geratu gara; beldurra genuen parte-hartzaile kopuruarekin, baina azkenean jende asko animatu da, eta 120 lagun bildu ditugu». Hala ere, denak ez ziren hitz onak izan, «Udalaren aldeetik eta komunikabideetatik ez dugu ia laguntzarik jaso, behin eta berririo joan gara ate joka, eta ez digute kasurik egin». Almitzakoek ustetan, «euskal kulturako eta tradizioko kirol bat izanda, ez zaio behar bezainbesteko laguntzarik ematen segari».

Ikuskizun honen ideia Europar barrena egindako bidaetatik sortu zen. Laster, honen harira, Euskal Herriko 23 lagun joango dira Alemaniara, hiru egun irauten duen festa-lehiaketa batean parte hartzera.



Baliarraingo taldekoak kamiseta gorriarekin atera ziren. E. EZEIZA



Kataluniako emakume segalarriak, sega eta txapela bereziekin. E. E.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Gidariak. Udaletan eta Eusko Jaurritan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu libreak:

Eusko Jaurritan, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

Mantenimendu Ofiziala. Ospital, egoitza eta udaletxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.

Osakidetzak. Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaletxeetarako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

KIROLA ▶

750. urteurrenean, Olanoren omenezko Klasikorik «bereziarena»

500 txirrindulari inguru aritu ziren hiru ibilalditan Abraham Olan Nazioarteko X. Zikloturista Klasikoan, herenegun



Eguraldia lagun izan zuten txirrindulariek. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

NOELIA LATABURU

Peña Olanok urtero antolatzen duen Abraham Olan Nazioarteko X. Zikloturista Klasikoak bere edizio bereziarena izan zuten, herenegun, Tolosaren 750. urteurrena dela eta. 400 txirrindulari eman zuten izena probarako, baina egunean bertan 100 gehiago aritu ziren; beraz, guztira 500 lagun inguru ibili ziren bizikletaren gainean.

Peña Olanoko Jesus Mansok HITZARI adierazi dionez, edizio «arrakastatsua izan da» eta guztia «era egokian garatu zen». Ez zen ezbeharririk jazo, bada, eta partaide guztiak

«gustura» azaldu ziren. Aurtengo ibilaldi bereziak zirela eta «jende gehiagoren partaidetza» espero zuten; aitzitik, «pozik» daude peñakoak.

Aurtengo berrikuntza nagusia ibilbidean nabaritu zuten txirrindulariek; izan ere, hiru luzera izan zituen. Lehenengoa, zeinak 67 kilometro baitzuten, gazteenak aritu ziren batik bat. Bigarrenagoak lortu zituen partaide gehien, 110 kilometro burutzeko eta batzuen batzuk ere animatu ziren ibilbide gogor eta luzeenarekin. Biek ala biek Aralarrena igoera zuten, eta azkenak, gainera, Urrakikoa. Azken ibilbidea hautatu zutenek 34 kilo-

metro orduko abiaduran korritu zuten eta erdibidekoa burutu zutenek, aldiz, 31 kilometro orduko abiaduran.

Omendua ere, tropelean

Txirrindularitza munduko aurpegi ezagun ezagun batzuk ikusi ahal izan zituzten proba ikustera joan ziren zaletuek. Besteak beste, Gaston, Arsenio Gonzalez, Mauleon eta Tom Davis txirrindulari ohiak izan ziren bertan; eta, nola ez, Abraham Olanok berak ere ez zuten hitzordua galdu. Halaber, egun jarduten duten txirrindulariek ere hartu zuten parte Klasikoan, hala nola, Gaztañagak eta Perez Arrietak.

Orokorrean, antolakuntzan parte hartu zuten guztion laguntza eskertu nahi izan du Mansok. «Lan nekeza izan zen, 06:00etan hasi eta 17:30ak arte ez ginen geratu». Anoa-postuetan egon zirenek ere egun gogorra izan zuten; izan ere, «hezetan handia zegoenez, txirrindulariek egarriz heltzen ziren bost gune hauetara». Heldu den astean, bilera egingo dute, alderdi onen eta txarren arteko balorazioa egiteko. «Dena ondo atera da, baina gogoratu nahi diet txirrindulariei bideko segurtasun-arauak betetzeko, guztion onurarako».

KULTURA ▶

Durangoko orkestrak gaur, XII. Musikarian

Atzo abiarazi zuen Udal Musika Eskolak kontzertuez eta emanaldiez beteriko astea

N. LATABURU

Tolosako Udal Musika Eskolak, urtero legez, Aste Musikaria antolatzen du. Aurtengoan 12. ediziora heldu da eta aste osoan zehar emanaldiak eta kontzertuak izango dituzte zaletuek aukeran. Atzo ekin zioten, hain zuzen ere, XII. Musikarian, Miren Ceberio eta Ivan Garcia osatzen duten Al Legno Duo bikoteak eskaini zuten bibolin kontzertuarekin. Eta larunbata bitarte, egunero egunero izango da zer gozatuena Musika Eskolako aretoa.

Gaur Durangoko kontserbatorioko orkestraren bisita jasoko dute Musikariaren hari-

ra; hala, 19:00etatik aurrera, kontzertu didaktikoa eskainiko dute Musika Eskolako areto nagusian, abesti berezietan osatua. Batetik, orkestra txikia ariko da, Larratiz Zarrabeitia zuzendariaren gidaritzapean. Biolinak, biola-txeloak eta txeloak osatuko dute txikiaren emanaldia; 3 pieza eskainiko dizkiete ikus-entzuleei. Gazteen orkestraren txanda izango da ondoren, eta 12 pieza joko dituzte. Ana Maestrok zuzentzen duen orkestraren biolin-joleak, biola-joleak eta txelo-joleak izango dira entzungai, Edurne Egia eta Karnele Elexpe abeslari lanetan ariko direlarik.

GAZTERIA ▶

Tolosako etxebizitzaren errealitatea hizpide, etzi

Emantzipazioari buruzko zikloaren azken hitzaldia izango da, 20:00etan, Kultur Etxean

N. LATABURU

Etzi amaituko da Gazteria sailak antolatutako emantzipazioari buruzko hitzaldi zikloa. Hala, 20:00etan, Kultur Etxean, *Tolosako etxebizitzaren errealitatea* izango dute mintzagai. Bertan, etxebizitzaren inguruko

gogoeta orokor bat egiteaz gain, Voith-Gorostidi inguruneko etxebizitzari buruz jardungo dute, bai eta Laskoraingo proiektuari eta Arau Subsidiarioen azterketari buruz ere. Hizlari lanetan Tolosako alkate Jokin Bildarratz eta Aitziber Lazkano ariko dira.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorri. 47. kalera
 TOLOSA
 Tel.: 943 65 50 37
 Fax: 943 65 09 44
 e-mail: enria@enria.com
 www.enria.com

Abaltzisketa. Oso tamaina politeko baserria salgai.
Anoeta. Marban dagoen taberna-jatebidea alokairuan.
Informazio pertsonala.
Alegia. Taberna alokairuan.
Informazio pertsonala.
Alkiza. Eraikuntza berriko ebte bifamiliarra salgai. 4 solairu.
Bista oso onak.

Amezketak. Ebte abikia salgai.
Amezketak. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Oso egoera onean. Nahiko eraikuntza berria. Berokuntza, trasteleku eta igogailuarekin.
Areso. 600 m2 dituen partzela salgai. Ebte bifamiliarra eraikitzeko proiektuarekin bai eta baimenarekin ere.
Belautza. Eraikuntza berriko ebte bifamiliarra. 462.780 euro.
Hernalde. Ebte bifamiliarr ederra salmentan. Eraikuntza nahiko berria.
Ibarra. Ebte adosatua salmentan. Oso egoera ona.
Ibarra. Garaje ibi eta irekiak salgai.
Ibarra. San Inazio auzoa. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 228.385 euro.

Ibarra. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan dago. 210.355 euro.
Ibarra. Euskalerrria kalea. Oso egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berokuntzarekin.
Gabiria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko ebte bifamiliarra.
Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai. 168.285 eurotik aurrera.
Tolosa. Belate. 3 logela, sukalde-egongela, bainugela. 264.450 euro.
Tolosa. Berazubi. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Ezutze kanpoaldera.
Tolosa. Zumalakarregi. 165m2-ko etxebizitza salgai. Trastelekuarekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m2. 2 eta 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederrak. Guztiz berriak. Estreinatzeko.
Tolosa. Araba etorbidea. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, 25 m2-ko trasteleku eta garajea.
Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Trasteleku eta garaje ibia.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m2ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.
Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m2-ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak.
Garajeekin.
Tolosa. Usabal. 2.000 m2-ko pabilioa industriala alokairuan.
Tolosa. Guadalupe. Pabilioia, 228 beheko aldean eta 148 m2 goialdean. Prezio interesgarria!!
Zizurkil. Ebte abikia salgai, oso egoera onean.
Zizurkil. Ebte bifamiliarr ederra salgai. 4 solairu.
Villabona. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Balkoi ederra. Dena kanpoaldera. Etxebizitzak erabateko obra behar du. Eraikuntza guztiz berri dago eta igogailua dauka.

ALEGIA ▶ KIROLA

II. Kirol Astea hitzaldiarekin hasiko da

Gaur hasi eta larunbata arte, kirolaren inguruko ekintzak egingo dituzte



Aurten ere ginkana prestatu dute larunbaterako. N. LATABURU

NEREA URBIZU

Alegian II. Kirol Astea antolatu dute. Horretan, lehengo urtean bezala, kirola praktikatzeari gain, kirolaren inguruko hainbat ekintza egingo dituzte: hitzaldiak, afariak, dokumentalak...

Gaur, 19:45ean, hitzaldia izanen da: *Kirola nola egin, bizkarrara ondatu gabe*. Michel Marmier doktoreak bideratuko du solasaldia, bizkarrezurreko espezialista dena. Kultur Etxean egingo dute saioa.

Ostegunean, 19:30ean, *Mon-golia zaldiz* proiektioa eskainiko du Angel Cuervo bidaiari eta abenturazale tolosarrak.

Ostiralean, 18:00etan, Intxurre Pilota Eskolako partaideen pilota partidak izango dira

ikusgai, eta ondoren duela hilabete batzuk hasitako *7e pasa* Pilota Txapelketako finalaren errebantxa jokatu dute.

Asteburuan, larunbatean, 11:30ean, ginkana antolatu dute herriko plazan. 21:00etan, leku berean, 2005-2006 denboraldi bukaerako afaria izango da, eta zahagiardoa sagardoarekin prestatuko dute. Bakoitzak berea eraman beharko du, eta Intxurre Kirol Elkarteak nahi adina sagardoa jarriko du herriarentzat.

Igandean, goizean goizeko mendi martxa prestatu dute ere, lehengo urtean bezala: 08:30ean aterako dira Zartagiaren Kobazulora joateko, Guardetxeraino, alegia. Bada, beraz, non egin kirola eta non honetaz gozatu aste honetan.

ASTEASU ▶

Txapartegiren atxiloketa-buruak deklaratu du

Asteasuarraren abokatu Izaskun Gonzalezek ezin izan dizkio galderak egin

ERREDAKZIOA

Nekane Txapartegi asteasuarraren atxiloketako guardia zibil buruak deklaratu zuen, atzo, Madrilgo 34. Instrukzio Epaitegian. Txapartegiren abokatu Izaskun Gonzalezek HITZARI azaldu dioenez, guardia zibilak babestutako lekuko bezala deklaratu du: «Valentzian dago egun lanean eta bideokonferentziaz egin du deklarazioa. Babestuta zegoelako nik ez dut ikusi zein den, bere aho-tsa bakarrik entzun dut».

Halaber, deklarazioa egin duen guardia zibilak torturarak ukatu dituela azaldu du Gonzalezek: «Txapartegi ETAkidea dela esan du eta torturak salatzea ETaren estrategia dela». Asteasuarraren abokatuak ezin izan ditu galderak egin: «Guardia zibilak uko egin dio galderei erantzuteari, eta epaileak ez dit galderak eginen ere utzi. Protesta idatzi bat jarri dut horregatik».

Txapartegik bigarren aldiz salatu zituen torturak jasan zituela aurtengo urtarrean. Bere atxiloketan parte hartu zuen guardia zibil burua identifikatzeko gai zela azaldu zuen, eta horregatik epaileak deitu zuen guardia zibila deklaratzera. Orain, epaileak erabaki behar du deklarazioa hartutako guardia zibilari epaieketa abiarazten dioen edo ez.

Bien bitartean, Izaskun Gonzalezek azaldu duenez, torturen salaketan aurrera egingo dute: «Medikuen txostenak ditugu. Alde bategatik, Guardia Zibilaren kuarteleko medikuak Nekane gorpuztean zituen hainbat marka jaso zituen bere txostenean, baina espetxeko medikuak askoz gehiago eta zehatzago jaso zuen. Zergatik gertatu zen ezberdintasun hori? Froga horiek guztiak epaitegian aztertu ditzaten nahi dugu». Bestalde, atxiloketan eta galdeketan parte hartu zuten guardia zibilak identifikatu ditzaten nahi dute Txapartegik eta bere abokatuak.

IKAZTEGIETA ▶

Herriko jaiak antolatzeko lehen bilera, gaur

Sanlorentzoak prestatzen hasiko dira gaur Ikaztegieta. Izan ere, 21:00etan, festetako lehen bilera egingo dute herriko liburutegian. Festak denen gustura egiteko bilerara edozein joan daitekeela azaldu dute. Bertan ideia berriak eta proposamenak plazaratuz gero, aberatsagoak izango dira herriko festak. Beraz, herri guztia dago gonbidatuta bertara, abuztuko jai egunak aberatsagoak izateko.

BERASTEGI ▶

Azpiroz, bigarren San Isidro trofeoan

Arantzazu Azpiroz txirindulariak bigarren egin du XI. San Isidro Trofeoan. Honekin, Espainiako Kopan parte hartzeko puntuak lortu ditu berastegiarrak. Bere taldeko Gema Pascual madrildarra izan zen garaile, beste behin, 18 segundoko alde ateraz. Kadete mailan, berriz, FC Tolosa taldeko Ana Usabiagak ere bigarren egin zuen, garaile izan zen Catalina Rayo baino bi segundo geroago iritsiz.



Azpiroz txirindularia. HITZA

SAN FELIZISIMO ▶

Deustura joateko autobusak antolatu dituzte

Ekainaren 4an San Felizisimora joateko asmoa dute, autobusetan, Deustun dagoen pasionista elizara, hain zuzen. Antolatzaileak Txindoki autobusekoak dira. Orain arte izena emateko eperik ezarri ez badute ere, izen-ematea lehenbailehen egitea komeni da, autobus kopurua zein den jakiteko. 943 65 30 12ra deitu behar da horretarako.

ANOETA ▶

Euskarari bultzada emateko hitzaldia

Euskararen erabileraren inguruan hausnarketa egin eta bultzada bat eman nahian, Anoetako Herri Ikastola eta Irurako Ikastola *Euskara ezpainetan*, *euskaraz bizi* kanpaina aurrera eramaten ari dira. Horregatik, hainbat ekitaldi antolatu dituzte: beste artean, gaurko hitzaldia, Anoetako Herri Ikastolan. Anoetako Udalaren Euskara

Zerbitzuaren laguntza jaso dute ikastolakoek honetarako. Kike Amonarrirek zuzenduko du *Euskara ezpainetan*, *euskaraz bizi* hitzaldia. 19:00etan emango diote hasiera, esan bezala, ikastolan. Gurasoei zuzendurikoa bada ere, denak daude gonbidatuta honetara, eta denen artean euskarari bultzadatzeko bat eman nahian bilduko dira.

PILOTA ▶

Beotibarren partidak HITZA Txapelketan

Gaur, Beotibarren, 19:30ean, jubenilak ariko dira III. HITZA Pilota Txapelketan. Lehenengo partidari, Garrantza-Berri, Ezkurdi-Bergeraren aurka. Gero, Mendizabal-Azkarate Goikoetxea-Larrinaga bikoteak ariko dira. Bukatzeko, 22 urte azpikoak: Uriarte-Iza eta Tainta-Etxegarai. Bihar, 20:30ean, jubeniletan, Gofi-Otxandorena Narbarte II.a-Urrutiaren aurka; eta bukatzeko, Beloso-Huarte Murguza-Zapirain seniorrak.

Tolosaldeko Telefono Listin berria egiten ari gara. Komertzio bat badezu, laister **TU Komunikacion**-eko bisita bat edukiko duzu. Hau da gure laziko portada, ez nahastu!

Hala ere, bertan publizitatea egin nahi badezu, **943214141/439200887/4392008987** deitu dezakezu.

HERRI KIROLAK ▶

Bi eskualdeetako harri-jasotzaileak eta aizkolariak, aurrera

Saralegik eta Perurenak finalaurrerako txartela lortu dute; Otaegik eta Rekondok lehia zailak dituzte finalerdietarako



Rekondo eta Otaegi —biak eskuinean— erakustaldi batean. I. GARCIA

IMANOL GARCIA


Finalurrekoak jokatu dituzte bi eskualdeetako aizkolari gazteek eta harri-jasotzaileek Urrezko Txapelketan. Azken hauek, hau da, Mieltxo Saralegi eta Inaki Perurena leitzarrek justu-justu lortu zuten txartela Izeta IV.aren eta Aimar Irigoienen aurka. Bestalde, Joseba Otaegi aizkolari zizurkildarrak bere kanporaketa galdu bazuen ere, bazekien aurrera egingo zuela eta Atutxa II.aren aurka neurtuko da. Jon Rekondo leitzarra emaitzen zain zegoen bere etorkizuna jakiteko, eta azkenean finalurrekoetan ariko da, Mugertza II.aren aurka.

Gutxigatik irabazi zuten Saralegik eta Perurenak herrian jokaturako kanporaketa. 10.799 kilo jaso zituzten eta aurkariek, berriz, 10.751. «Ongi aritu ginen», azaldu dio Saralegik HITZARI. «Gazteak bizi-bizi datoz eta asko jaso behar da irabazteko». Ez du esperantza handirik Urrezko Harri-jasotzaileen txapelketa irabazteko: «Garbi daukagu irabazterik ez dugula. Ez gaude presatuta lan horretarako. Bikote bat gehiago behar zuten, eta hor gaude». Bestalde, Izeta IV.ak eta Irigoienek jarritako erreklamazioaren egoera zertan dagoen ez daki: «Plazan erabakitakoak balio izaten du. Antolatzaileek deitzen badigute joango gara finalurrera».

«Gogorra»

Hitz bera erabili dute Rekondok eta Otaegik bakoitzaren finalurrea definitzeko: «Gogorra». Leitzarrek Mugertza II.ari iaz irabazi zion, baina aurten aukaria ondo ari dela dio: «Egun txarrrik ez du eta beti maila berdina ematen ari da».

Otaegik Mutrikuko kanporaketan «egun txarra» izan zuela azaldu du, eta Atutxa II.ari irabaztea zaila izango dela dio: «Aurten 18 urte egingo ditu, baina denei irabazten ari da. Nire lana eginez gero aukera dut finalera iristeko, baina ikusi egin beharko dugu nola joaten den neurketa».



MILAKA
ARRAZOI
DITUGU
GAUZAK
GAINERAKOEK
EZ BEZALA
EGITEKO.

Ez da logikoa. Gainerakoek gauza berriak probatzeko adinik ez dutzula pentsatzen badute ere, zu ausartu egin zara. Orain dela zortzi urte sortu ginen, gure herriarentzako konpainia izateko. Eta, gaur egun, 144 herrialdetan gaude zuri laguntzeko prest. Ez da logikoa.

Ez ditugu gauzak beste guztiak bezala egiten. Baina, gaur egun, milioi bat pertsonaren baino gehiagoren konpainia gara. Horregatik, lanean jarraituko dugu, gauzak gutxienez zuk espero bezain ondo egiteko. Euskaltel. Zuretzat.

INGRID BUCHWALD ▶ ARTISTA

«Ideiak komunikatzen saiatzen naiz»

Ostilarala bitarte ibartarraren lanak daude ikusgai Kultur Etxean

IÑIGO TERRADILLOS

Datorren ostilarala bitarte Ingrid Buchwald-en (Ibarra, 1980) artelanak izango dira ikusgai Benito Izagirre kultur etxean. Batetik, 3 animazio era digitalean prestatu ditu, eta bestetik egur gainean eginiko 25 koadro ageri dira. Pozik dago ibartarra etxean bere lanak erakusteko aukera duelako.

Azken teknologia eta klasi-koa, biak ikusi daitezke zure erakusketan.

Hala da, eta hori zen nire asmoa. 3 animazioak ordenagailu bidez eginak daude, koloretan, mugimenduetan eta musikarekin. Koadroak, berriz, kontrakoak dira, hau da, egur gainean eginak, fondoa akrilikoa eta tenperan margotuta, teknika zaharretan, beraz.

Animazioetan zer irudikatu nahi izan duzu?

AB-1592-Y-30JAN animazioan esaterako, aireportuko aulki batean etzanda lo egin nahi duen gizona ageri da. *Capri c'est fin!* lanak, berriz, Marguerite Duras-en abesti gogokoenari zor dio izena; hondartzako ohiko postu bat azaltzen da, 3 hizkuntzetan du kartela, jende ugari eta askotarikoa izan ohi delako bertan, baina animazioan ez da inor ageri; izan ere, abestian dioen bezala, garai onak bukatu dira bertan. Hirugarren animazioaren izenburua *La temporada baja es para hibernar* da; Portugalgo kostako herri turistiko bateko hotelak urtean zehar dituen aldake-



I. TERRADILLOS

tak irudikatzen ditu minutu batean. Hartz baten zikloak bezala, 10 hilabete lotan dago, eta bi hilabete baino ez bizirik.

Eta, margolanetan?


Denetik dago, baina protagonista nagusia emakumea dela esan dezaket. Hala, animaliek kargak eta arazoak irudikatzen dituzte, eta emakumeak horiek gainean dituztela, gainetik kendu nahian eta beraietara aurreratu egin nahirik ageri dira.

Nondik sortzen zaizkizu ideiak?

Jendeak kontatutakoetatik, edota dokumentaletatik, edo nik ateratzen ditudan argazkietatik jasotzen ditut. Ideia edo inpresio horiek komunikatzen saiatzen naiz.

Zeintzuk dira zure hurrengo helburuak?

Berlinerua noa, Leonardo bekarrekin lau hilabetetarako lan egitera. ◀




'Jakintsu izan nahi dut'. Triptiko honetan, jakintsu izan nahi zuen emakumearen istorioa kontatzen da: liburu orriak lapikoan egosi zituen, eta ondoren salda edan zuen jakituriaren zuhaitzetik. HITZA



'Albizturko basurde harrapaketa'. Albizturren, jaietan egiten duten basurde harrapaketa irudikatzen du. Irudian, emakumeak, kementsu, aurre egiten dio arazoari. HITZA



'Zuhaitz magikoa'. Amets bat: ebean, ahaztuta eta izkutatuta zeukala tipula gozoak ematen zituen zuhaitza. HITZA



'Prozesioa'. Hartzak edo hartz larruak zamatuta, emakumeak suteraino ibiltzen dira beraien askatasuna berreskuratu ahal izateko. Emakumeek dituzten ardurak eta arazoak irudikatzen ditu. HITZA

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Amezketeta. Ebea abikia salgai.

Eraiki berria. Informa zaitez!
Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berogailuarekin.

Dena kanpoaldera. Etxesagasti.
943 69 68 56.

Andoain. Etxebizitza aitua, igogailuarekin salgai. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat berritua. Trastelekuarekin. Zonalde oso onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Anoeta. Eraiki berria. 70 m2. 2 logela. Egoera ezin hobean.

Dena kanpoaldera. 24 m2-ko trastelekuarekin. 46.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. Aukera paregabea! Etxebizitza zoragarria salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Egoera ezin hobean. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Legorreta, Berrobi, Baliarrain, Itsasondo eta Albiztur. Egoera oneko baserriak, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Egoera onean. Oso eguzkitsua. 44.000.000 pezeta.

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Argazki kamera. Argazki kamera digitala galdu da Alegian. Olympus markakoa. 695 27 90 87.


SALGAI

Autoa. Renault Kangoo RXE DTI salgai. 2000. urtekoa. 88.000 kilometro. Estrak. Interesatuak deitu 943 69 71 94 telefono zenbakira.

Furgoneta. Vito CDI 110. 2002. urtekoa. Kanpinerako prestatua. 685 72 50 53.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. «Zer iruditzen zaizu Tolosako Udalaren kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza? Zerbaitetan hobetu behar al du?». Jaso ditugun emaitzak:



LEITZA ▶ KULTURA

Urtetan egindako jarraipenaren fruitu

'Hartz arrea Pirinioetan' liburua kaleratu berri du Migel Mari Elozegi leitzarrak eta herrian ere aurkeztu du



JAIONE ASTIBIA

Urtetan aritu da Migel Mari Elozegi (Leitza, 1970), hartzari, hartz arreari buruz idatzi denaren, ikertu denaren, egin denaren jarraipena eginez; ez, ordea, bere biologiari buruz edo bere kontserbazioari buruz argitaratu denaz bakarria, baita kulturaren izan duen eraginaz ere; eta gainera, berak ere bere ikerketa propioak egin ditu eta, esaterako, kontserbazioaren inguruan-eta bere ikuspuntua plazaratu. Jarraipen horren ondorioz, «pilatuta nuen materiala txukundu eta *Hartz arrea Pirinioetan* liburua atera da», aitatu liburua horren egileak berak Leitzako liburutegian egindako aurkezpenean esan zuenez.

Liburua Elkar argitaletxeak plazaratu du; 228 orri ditu eta modu erakargarrian, 100 argazki inguruz hornitutakoa da, koloretan eta leitzarrarenak berarenak direnak, hainbat mapa eta eskema tartekatuta ditu. Izenburuak berak adie-

razten duen moduan, Pirinioetako hartza da haria eta gunea, «biologia, kultura eta kontserbazioa» aztergai hartuta. Hartzaren bizitzako oinarriko ezaugarriak azaldu ditu liburuaren hasieran: hibernazioa, elikadura, ezaugarri fisikoak, portaera...

Azinda mirestua izana

Eta bigarren atal batean, hartzak kulturaren utzitako lortzak aztertu ditu: «Tximurik ez dagoen paraje hauetan, gizonaren tankera duen azinda, hartza da. Batzuetan zutik egoten da; martxa normalean oinatzak ere bi zuten ditu, atzeko hankekin aurrekoak estaltzen baititu (hamar azkazal marka ikus badaitezke ere); neguan *desagertzen* da udaberriaren berriz *agertzeko*; miresmena eragin du. Esate baterako, toponimian, ospakizunetan, Iho-teetan batez ere, arrasto asko utzi ditu hartzak, oraindik bizi den edo bizitu den lurraldeetan». Eredu gisa aitatu zituen, eta erakutsi ere bai diapositi-

betan, herrian bertako hiru *Artzan zuloa*, *Artxulo* paraieetako argazkiak.

Lehen hedatuago bizi izan bazen ere, orain Pirinioetako eremu ttikietara mugatuta dago hartzaren bizilekua. Eta horixe du hizpide leitzarrak, liburuaren hirugarren atalean, hots, kontserbazioa. Honen harira, lehen ere argitaratu du gai horri buruz berak duen ikuspuntua, *Hartzak Pirinioetan XXI. mendean* (Pamiela, 2004) lanean. Eta oraingo berri honetan ere bere iritzia jakinarazi du, aurretik hartzen kontserbazioa hasi zenetik egin diren saiakerak aztertu ditu: Pirinioetako bertako eginahalak, beste lekutakoak (Kantauri mendikatekoak, kasu), nola landu diren, eta nola ez diren landu ere bai: «Pirinioetatik otsoa desagertu zenetik, predatzaile gabeko egoera batera eboluzionatu du artzantzak», hartza ez zuten-eta azerio gisa ikusten: «Zaintzaile kultura hori galduta dago Pirinioetan eta hartzen repoblazioak sortu duen egoera horretarako egokitzekoak daude». Ez da hartza edo artzaintza, aukera egin behar, ordea.

Hartzaren kontserbazioa beharrezko den moduan, «artzaintza ere ezin da galdu: azinda arrazak, paisajeak, herriak, bizimoduak galduko lirateke. Gizarte osoak ahalegina egin behar luke hau guztia mantentzeko: artzainei arreta eskaini». Beste lekuetan hartza ongizatearekin lotu dute: «Ongi doaz, baina Pirinioetan herrialde asko daude, eskumen desberdinak, oso eremu anitza da, konplexua. Ez dakit zer gertatuko den».

LEITZA ▶ FUTBOLA



Aurrera taldea erasoan, partiduko une batean. J. ASTIBIA



Zaletuak taldearekin elkartu ziren partidua bukatutakoan. J. ASTIBIA

Helburuak lortuta, zain dago Gorengoen Maila

Azken partiduko garaipenak Ligako bigarren lekua eman dio Aurrerari, 56 punturekin

J. ASTIBIA

Larunbat honetan jokatu dute Nafarroako Lurraldeko Lehendabiziko mailako Liga txapelketako azkeneko partidua talde guztiek, egun eta ordu berean. Aurrerak, Irunberri hartu zuen Arkixkilen eta aurtengo hemezortzigarren garaipena eskuratu zuen: 2 eta 1eko ematzarekin, beste hiru puntu gehitu zizkion bere kontu partikularrari, eta hala, Ligako txapeladunorde bilakatu zen.

Garrantzitsua lorpena, hain zuzen ere, Gorengoen mailara igoera ligaxkan parte hartzeko eskubidea ez ezik, beraiek nahi bezala, horrela, itzulera-ko partidua etxean jokatzeko aukera ere izanen dutelako.

Azken partidua hau lehiakorra izan zen erabat. Bi taldeek presio handia egin zuten ate inguruetan, partidua osoan zehar; falta askoko jokoa suertatu zen eta, ondorioz, baita txartel dezentekoa ere. Baina Aurrerak, Antolinek eta Anduezak penaltiz sartutako golel esker, eta pankarta eta guzti joandako zaletuen laguntzarekin ere, garaipena eskuratu zuen. Aitatzekoa da jubeniletako lau futbolari gaztek ere talde handiarekin jokatu zutela eta oso lan ona egin zutela, bai babes lanetan eta baita hainbat alditan eraso gidatuz ere.

Gazte Berriak-en ondoren, puntu bakarrera, 56ekin, beraz, orain igoerako ligaxkari ekinen dio Aurrera taldeak.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 23a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

beroena 15 hotzena 10

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Txosna batzordeak deitutako bilera, Bihar, 20:00etan, Kultur Etxean.

HITZALDIAK

Alegia. *Kirola nola egin bizkarrak hondatu gabe.* 19:45ean, Kultur Etxean. Kirol Astearen barruan.
Anoeta. *Euskara ezpainetan, euskaraz bizi* kanpainaren inguruan hitzaldia emango du Kike Amonarrizek. 19:00etan, Anoetako Herri Ikastolan.

MUSIKA

Tolosa. Durangoko Kontserbatorioko orkestraren kontzertu didaktikoa. 19:00etan, Musika Eskolan. XII. Musikariaren baitan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia M.I. Elbarren 95. 112.
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitza-ren errepasoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
 22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Kultur Astearen pintzelkadak

LEITZA ▶ 'Pinta eguna'-rekin hasi zen igandean XXVIII. Kultur Astea; 30 bat haur aritu ziren artelanak egiten; gaur, drogei buruzko mahai-ingurua

ERREDAKZIOA

Koloretu hasi da Leitzako Kultur Astea aurten. Herriko haurrek egindako marrazki eta eskulanen kolore biziz bete zen, igandean, plaza XXVIII. Kultur Astearen aurreneko ekintza zen: *Pinta eguna*. 30 bat haurrek hartu zuten parte deialdian, gurasoek lagunduta. Kartoizko kaxak, pintzelak, margoak... hartu eta plazako txoko batean zein beste aritu ziren buru-belarri lanean: kaxak pintatzen, pape-rak margotzen teknika berezi batekin... Hamaiketako ere izan zuten denentzat.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «gustura aritu ziren guztiak bazkal ordura arteko tartetan lan eta lan». Artelan politik egin zituzten artista txikiak, eta gero, gainera, horiek Karrapeko sabaian zintzilik ikusteko aukera ere izan zuten. Lagunei poz-oz erakutsi zizkieten.

Kultur Astea, beraz, hasi berterik ez da egin, eta egunero-egunero egongo da zertaz gozaterik herrian. Atzo, Euskal



Plaza hartu zuten artista txikiak; beraien lanak Karrapeko sabaian zintzilikatu zituzten gero. J. ASTIBIA

Herriko Emakumeen Eskubideen Karta aurkeztu zuten. Eta gaur, *Drogen inguruan zer? Gazteak nondik nora?* izenburupean, mahai-ingurua prestatu dute, 20:00etan, Aurreran.



Teknika berezia erabiliz margotu zituzten orriak. J. ASTIBIA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aitor Ibarzabal (Tolosa).
 Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu bat denon partetik.



URTE ASKOAN
Eñaut (Alegia).
 Gaur 6 urte. Zorionak eta ondo pasa.

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...
hitza
 agurren tarte

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

- ▶ **egunero** 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz
- ▶ **uneoro** informazioa eskura www.tolosaldeko-hitza.info

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz
EROSAGOA eta **2 ZATITAN**
ORDAINTZEKO AUKERA

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□



txartel berriarekin abantailak!
beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan
 besteak beste



egunean 0,18 zentimoren truke etxean